



**HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO TXOSTENA, NAFARROAKO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEN LANALDIAREN
MURRIZKETA ARAUTZEN DUEN APIRILAREN 4KO 27/2011 FORU DEKRETUA
ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arautzen du herritarren parte-hartzea lege eta erregelamendu maila duten arauak prestatzeko prozeduran. Artikulu horren 1. apartatuak jasotzen du kontsulta publikoaren tramitea bideratuko dela, herritarren iritzia jasotzeko.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikuluan j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Horrez gain, k) apartatuan esan bezala, eskubidea izanen du parte hartu duen prozeduraren behin betiko emaitza publiko egiteko, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne. Gainera, 21. artikulua azaltzen duenez, Nafarroako Administrazio Publikoek argitara emanen dituzte prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita, baita herritarren parte-hartzearen emaitza ere, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Herritarrek aldez aurretiko kontsultan parte hartzeko aukera izan zuten, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz 2021ko otsailaren 19tik martxoaren 16ra bitartean. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen posta elektronikoko helbide hau: funcionpublica@navarra.es. Parte hartzeko prozesu hori amaitu zen inolako ekarpenik jaso gabe, eta horrela adierazi zen zegokion txostenean.

Ondoren, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Foru

Dekretuaren Proiektua prestatu eta gero, herritarren parte-hartzeko tramitea egin zen Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta, web esteka honetan, hain zuzen:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/foru-dekretuaren-proiektua-zeinaren-bidez-aldatzen-baita-lanaldiaren-murrizketa-27-2011-foru-dekretuaren-aldaketa>

Proiektuaren behin-behineko testua jendurrean jarri zen 2020ko maiatzaren 26tik ekainaren 15era bitartean, eta arestian aipatutako helbide elektronikoa gaitu zen horretarako.

Jendurreko epe hori igaro ondoren, esan beharra dago ez dela ekarpen edo iradokizunik jaso parte hartzeko prozesuak iraun duen bitartean. Horrenbestez, eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, bidezkoa da proiektu horren tramitazio administratiboarekin jarraitzea.

Iruñean, 2021ko ekainaren 18an.

Sinadura jatorrizkoan dago